

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Basauriko Udala**

Txanda irekiko Iturgin-ofizialaren bi lanposturen hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, epaimahaiaren izendapena eta azterketa-data.

Alkatea, Alkatezaren DEC-2022/001419 (2022ko apirilaren 13) zenbakiko Dekretua eman du, eta honako hau ebatzi du:

Lehenengoa: Txanda irekiaren bidez Iturgin-Ofizialeko bi (2) lanpostu (Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Bereziatiko Azpieskala, Ofizioetako Langile Mota, C2 Taldea) oposizio-sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtzea. Zerrenda hori 2022ko otsailaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: Deialdiko Epaimahai Kalifikatzaileko kide hauek izendatzea:

— *Presidentea:* Iñaki Bañuelos Irusta.

Ordezko lehendakaria: Cristina Alcalde Diaz.

— 1. *bokala:* Maximiliano Gonzalez Ortega.

1. *bokala, ordezkoa:* Fernando Cherino García.

— 2. *bokala:* Jon Barrenechea Gerediaga.

2. *bokala, ordezkoa:* Juan Carlos Gomez Arrausi.

— 3. *bokala (IVAP):* Iñaki Etxabe Otaegi.

3. *bokala, ordezkoa (IVAP):* Enrique Lopez de Vallejo Garcia.

— *Batzordekidea euskaraz (IVAP):* Miren Aintzane Etxebarria Urkiola.

Ordezko batzordekidea euskaraz (IVAP): Iratxe Etxebarria Arizmendi.

— *Idazkaria:* Begoña Mena Zarandona.

Ordezko idazkaria: Mikel Bagan Urtiaga.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta organo eskudunari jakinarazi beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean. Izangaiek atzera bota ahal izango dituzte, lege horren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

Hirugarrena: oposizioaren lehen ariketa non eta noiz hasiko den zehaztea: 2022ko uztailaren 14an (osteguna), 16:00etan, CIFP Bidebieta LHIn (Agirre Lehendakaria, 97, Basauri).

Laugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

Basaurin, 2022ko apirilaren 13an.— Alkatea, Asier Irigorri Basaguren